



2023ko azaroaren 28ko EHAAn argitaratuko da Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaiak karrerako funtzionario izendatzeko agindua. Jarraian, 2023ko azaroaren 14an argitaratutako jarraibideak osatzen dira, lanpostuaz jabetzeari eta horren inguruko gainerako gaiei buruzkoak:

- Irakasle-kidego bateko karrerako funtzionario izan eta beste irakasle-kidego bateko karrerako funtzionario izendatu behar direnek, 2023ko azaroaren 28tik aurrera, idazki bat aurkeztu beharko dute Tramitaguneren bidez, adieraziz zer kidegotan egon nahi duten jardunean eta zer kidegotan eskatzen duten eszedentzia beste kidego batean zerbitzuak emateagatik. Era berean, irakasleen kidego bateko bitarteko funtzionarioak izan eta beste irakasle-kidego bateko karrerako funtzionario izendatuko dituztenek, bitarteko funtzionario gisa jarraitu nahi badute, dagokion idazkia aurkeztu beharko dute Tramitaguneren bidez, 2023ko azaroaren 28tik aurrera, beste kidego batean zerbitzuak emateagatik egonkortzen diren irakasleen kidegoan eszedentzia eskatzeko. Ahal bada, eskaerak 28an bertan egin behar da, izapideak arintzeko. Lanpostuaz jabetzeko ekitaldia lan egingo duten ikastetxean egingo dute (egindako aukeraren arabera).

- Aldi baterako etete-egoeran daudenak 2023ko abenduaren 1ean jabetuko dira karguaz, eta aldi baterako etete-egoeratik seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo zerbitzu bereziko egoerara, kasuaren arabera, igaroko dira automatikoki, eskatu beharrik izan gabe.

- Lanpostuaz jabetzeko eginbideak 2023ko abenduaren 1ean lanean ari den ikastetxean sinatuko dira, ikastetxeko zuzendariaren aurrean edo, zuzendaria ez badago, zuzendaritza-taldeko beste edozein kideren aurrean.

Eusko Jaurlaritzara, Lakuara (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) joango dira lanpostuaz jabetzera, bakarrik:

--ikastetxe batean lanean ari ez direnak, beste lanpostu batzuetan (Berritzegune, Irale, Ingurugela, ISEI-IVEI, Urdaibai, OBTH, Teknika, IVAF, Irale, Girotze Barnetegia) zerbitzu-eginkizunetan daudelako

--eszedentzian, zerbitzu berezietan edo antzeko egoeran dauden eta 23-24 ikasturtean ikastetxerik esleitu ez zaien pertsonak

--ikastetxe jakin bati esleipenik ez dutenak eta lurralde bati edo ordezkaritza-kupo bati atxikita daudenak, hala nola lurralde bakoitzari atxikitako Entzumen eta Hizkuntzako pertsonak.

Pertsona horiek 3. gelara joango dira (Lakua IItik sartuta), 9: 00etatik 12: 00etara. Lakuara joan behar duten pertsonen zerrenda argitaratuko da.

- Zerbitzu berezietako edo seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentziako administrazio-egoeran daudenek edo aldi baterako etenaldiko egoeran daudenek ikasturte-hasierako esleipenetan esleitu zitzaizen lanpostua dagoen ikastetxean sinatu beharko dute.



- 2023ko abenduaren 1ean jaieguna den Gipuzkoako ikastetxeetan (Amaña HLHI, Eibar BHI, Azkoitia BHI eta Izarraitz LHII), jabetza hartzera joan beharko da Eibarko Hezkuntza Ikuskaritzara (Egiguren tarren kalea 12-14, 20600 Eibar), 9: 00etatik 12: 00etara.

- Jabetza hartu behar dutenek, zuzendaritza-taldeko kide badira, ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste edozein kideren aurrean sinatuko dute.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 27a

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO